



HISTORIARAKO INTERNATIONAL DRONE SHOW FESTIBALA

- Flock Drone Art-ek antolatutako Drone Show Festival jaialdiak 3 emanaldi izango ditu, lehenengoa ostiraleko inaugurazioaren parte izango da eta beste biak larunbat arratsaldean izango dira.
- Festibalan Italiako eta Hungariako enpresek parte hartzen dute Gabonak izango dira gai nagusiak eta Donostiako zerua argizatuko du, 300 droneko sortekin.

Drone Show Festibala nazioarteko lehen mailako ekitaldia da eta drone bidezko ikuskizunetako artistarik onenak biltzen ditu argien, musikaren eta teknologiaren esperientzia ahaztezina eskaintzeko. Asteburu honetan gozatu ahal izango da Donostia Sustapenak antolatutako Gabonetako Kanpainaren hasieran.

Hiru ediziotik gora eta mundu mailako izen handiko parte-hartzaileekin, jaialdi hau dronen artearen erreferente globala da. *Gabonetako lehen Internacional Drone Show Festival jaialdiak, Donostia 2024k*, 3 emanaldi izango ditu, guztiak Kontxako badian. Lehenengo emanaldia hilaren 29an, ostiralean, izango da, 18:30ean hasiko den inaugurazio ekitaldiaren barruan. Beste bi emanaldiak hilaren 30ean, larunbatean, 18:30ean eta 19:45ean izango dira.

Lehen aldiz, **International Drone Show Festival-ak** Gabonak izango ditu gai nagusitzat. Aurtengo ikuskizun guztiak Gabonetako espirituan oinarrituko dira eta jai hauetako magiari, tradizioei eta alaitasunari buruzko erreferentziaz beteta egongo dira. Ikuskizun bakoitzean, 300 dronek argizatuko dute Kontxako hondartza: 900 drone guztira, 300aka hegan egiten.

Gainera, **Espainiatik, Italiatik eta Hungariatik** datozen enpresen parte hartzeak jaialdiaren nazioarteko izaera indartzen du, mundu mailako ekitaldi paregabe gisa errotuz.

Enpresa parte hartzaileak eta Show-ak

Flock Drone Art

Deskribapena: Europako drone ikuskizunetan aurrendari, Drone Show Festival jaialdiaren sortzaile eta nazioartean saridun, Flock Drone Art-ek abangoardiako teknologia eta sormen artistikoa uztartzen ditu. Espainiako sektorean erreferentea izateaz gain, jaialdi honen sustatzaile nagusia da. Duela gutxi, oso nabarmena izan zen Bartzelonako 37. America's Cup Vela txapelketako finalaren inaugurazio ikuskizunean izan zuen parte hartzea, show-ean 1.000 drone inguru pilatu baitziren.

Show-a: *Izar Distira - Brillo de estrellas*

Ostirala 11/29 | 18:30ean (Gabonetako Kanpainaren inaugurazioaren barne)

Ikuskizun paregabe honek Gabonetako magia eta Donostiako ikurrik ikonikoenak batzen ditu. Jatorrizko musikarekin sinkronizatutako aireko koreografia, ikusleak hunkitu eta aho zabalik utziko dituena.

Pyroemotions

Deskribapena: Ikuskizun piroteknikoetan espezializatutako enpresa italiarra, hamar urtetik gorako esperientziaduna. 2023az geroztik, droneak batu egin ditu bere ikuskizunetan, su artifizialen eta teknologia aurreratuen arteko halako fusio bat lortuz, 3Dko ikusizun dinamikoa sortzeko.

Show-a: *Un regalo di luce - Argi opari bat*

Larunbata 11/30 | 18:30ean

Omenaldia Gabonetako zutabeei: argiei, familiari eta jai espirituari. Drone piroteknikoek zerua ahalmen sortzailez eta kolorez edertuko dute.

Europe Visual Group

Egoitza Hungarian duen enpresa hau benetako erreferentea da ikus-entzunezkoen teknologian eta ikuskizun ekoizpenean. 20 urtetik gorako esperientziarekin, kalitate eta berritasun handiko ikuskizunak bermatzen ditu.

Show-a: Xmas Show - Munduko Gabonak
Larunbata 11/30 | 19:45ean

Gabonetako tradizioen ibilbide magikoa hainbat kulturatan zehar, mundu osoan Gabonetako ikur diren pertsonaia ikonikoak protagonistatzat hartuta.

Historia egiten duen jaialdi bat

Flock Drone Art-ek sortua, **International Drone Show Festival** ikuskizunak teknologiaren, artearen eta emozioaren arteko bat-egitea ospatzen du. Gabonetako jaiak inspirazio dituen ikuskizunez betetako edizio honek mihise zoragarri bihurtuko ditu Donostiako zeruak.